

STAR
FIGHTERS
IZARTZAINAK
MISIO HILGARRIA

MAX CHASE

desclée

UBI GALAXIA

MEIGWOR
EGUZKIA

MEIGWOR

ASTEROIDEEN
EREMUA

GI ESPAZIO-GUNEA



EGUZKIA

LUR PLANETA

ESNE BIDEA



PLANETA-
BIKOTEAK

HAIZE-ZIRIMOLA

MAPARATU GABEKO GALAXIA

MAKI GALAXIA

XION

COS-MOAT
GERUZA

STAR FIGHTERS IZARTZAINAK

*Eliteko zaintza-taldeak
galaxia babestuko eta defendatuko
duela zin egin du.*

*5012. urtea da, eta Esne Bidea galaxia
erasoetan dago*

Unibertsoko Gerraren osteko garaia da. Unibertsoko ia galaxia guztiak desagerrarazi ditu Unibertsoko Gerrak, baina Esne Bideko planetek bat egin dute Galaxiarteko Indarra sortuta: galaxia babesteko eta defendatzeko zaintza-taldea da.

Etorkizun handiko ikasle argienak baino ez dituzte onartzen Galaxiarteko Indarraren Akademian. Onartutakoen artean, kadete onen-onenak baino ez dira maila gorenera iristen.



Izartzain izatea bizitza osoa misio bati eskaintzea da: *Bakea espazioan*. Izartzainen esku daude arma aurreratuenak, espazio-ontzi azkarrenak... eta misio arriskutsuenak. Galaxiarteko Indarraren Akademiako ikasle guztiek izan nahi lukete Izartzain egunen batean.

Badakizu zer esan nahi duen horrek?





I. atala

—Astro-inozo halakoa! —Diselek, txilio betean. Begi horiak dirdiraka ditu, eta tente du buru gaineko ile-mataza—. Izpi hilgarriek ez dute eraginik nebulosa-hodeien barruan.

—Nola ezetz, goazen nebulosa batera, ikusiko duzu! —Ottoren ahotsak burrunba egiten du alde bietara dituen konkorreratik—. Neuk erakutsiko dizuet badabiltzala!

Sari-biltzaile meigwordar erraldoiaren ahots-bolumena gehiegizkoa da, eta beti ari da zarataka.


Perik ezentzunarena egin dio beste bien arteko sesioari; izan ere, eztabaidan ari dira meigwor-

darren ontzia utzi zutenez geroztik. Perik Phoenixaren 360 graduko monitorean jarri du arreta. Ontziko ordenagailuaren arabera, euren helburua, teknologia goreneko Xion planeta, milioi bat miliara baino gutxiagora dago.

—Handitu irudia, Phoenix —eskatu dio ontziari.

Orbita laranja-urdina zabaldu egin da, eta pantaila osoa hartu du. Espazioko autobide izugarri batek inguratzen du Xion planeta. Zilar eta more koloreko mila eta berrehun bide biribilkatzen dira planetaren inguruan, espazioko sugeak balira bezala.

Perik atzamarrak luzatu ditu. Phoenixaren kontrol-panel hegalaria gertuago jarri zaio, zer nahi duen jakingo balu bezala. Ematen du bizi osoa eman duela espazio-ontziko gidari. Atzo bertan Galaxiarteko Indarraren Akademiako lehen urteko ikasle bat baino ez zen, entrenamendu-saio baterako hautatu zutelako pozik zegoena.



Orain, bahitutako printze bat salbatzeko misioan ari da. Baina, sorpresa handiena erdi-bionikoa dela jakitean hartu du. Gurasoek egin zizkieten behar ziren aldaketak, Phoenixa gida zezan.

Ezagutu berri duen *Espazioko gaien gida* aktibatu du. Atoan agertu dira 360 graduko pantailan dozenaka gezi, askotariko arriskuak seinalatuz. Perik atzamarra arrastatu du pantailan, eta espazioko autobidearen sarrerako ontzien gainean klikatu du. Informazio-leiho bat ireki zaio pantailan:

Xiondarren bidesariak, 3. maila

DESKRIPZIOA: bidesari hegalaria, xiondarren espazioko autobidea zaintzeko

ARRISKUAK: X-laserrak, ontzien eskanerrak, ezkutatzeko sistemak detektatzekoak

ADII: debekatuta dago meigwordarrak sartzea